

Alejandro Llano
Nuko errektore
berria

IRUÑA

Alejandro Llano, filosofia irakaslea eta metafisikan katedraduna izango da Nafarroako Unibertsitateko (NU) errektore berria, Alvaro del Portillo erakundearen Kantziller Nagusia eta Opus Deiko Prelaturaren partaidearen erabakiaren arabera. Alejandro Llanok datorren ostiralean hartuko du Alfonso Nietok utzitako kargua. Errektore berria Madrilén jaio zen 1943an, eta Batxillergo eta Lizentziatura Ez Ohizko Saria eta Espainiako karreraren amaieraren Sari Nazionala jasotzen ditu, Alfonso X Jakintsuaren Gurutzearekin batera. Irakaskuntza lanetan aritu da Espainia eta EEBBtako zenbait unibertsitatetan, eta 1976tik Nuko metafisika irakaslea da.

Halaber, memoria eta tesi franko zuzendu ditu eta zenbait artikulatu eta liburu baditu argitaratuta.

Gazteak eta intsumisioa

Bizkaiko gazteen % 40,3
intsumiso egiteko prest dago

Gazteak soldadutza desagertzearen alde daude Kakitzaten arabera

Bizkaiko gazteen % 78,3 soldadutza desagertzearen alde dago eta % 40,3 intsumiso egiteko prest azaltzen da Kakitzat talde antimilitaristak egindako inkesta batean.

G.A. / BILBO

Konsulta Bizkaiko 14 eta 18 urteko 11.864 ikasleren artean egin zuen Kakitzat-ek joan zen maiatzaren 15ean. Datuon arabera, % 78,3 soldadutza aurka dagoen bitartean % 16,03k bederatzi hilabetetako soldadutza aldeko apostua egiten du.

Bizkaiko gazteen % 71,4 talde antimilitaristek aldarrikatzen duten intsumisioaren alde agertzen da. Hala ere, soilik % 40,3 azaltzen da bere burua intsumiso egiteko prest eta % 46,04k ez luke bide honetatik joko.



Gazteak intsumisioaren alde daude.

Intsumiso ez egiteko arrazoiak bi motatakoak dira Kakitzaten ustez. «Mutikoen % 60,3 jarrera honek ekar ditzakeen ondorioen beldur da, lan arazoak, espetxeratua izateko arriskua eta abar. Bestetik, % 39,7k arrazoi ideologikoak argudiatu ditu bere

burua intsumiso ez egiteko, hau da, lege kanpo dagoelako, kontzientzi eragotzenaren bidea egokiago ikusten dutelako...» adierazi du talde honek.

KAKITZATEN
BALORAZIO
POSITIBOA

Oro har, % 49,2k ondo ikusten du emakumea Armadan sartzea eta % 42,1 aurka azaltzen da. Hala ere, emakumeen erantzuna aztertzen badugu emakumeen % 52,2 Armadan sartzearen aurka dago eta % 37,9, alde.

Armada profesionalean parte hartzei buruz, % 72,4 kontra agertzen da eta % 25,4k ez du inolako arazorik ikusten gisa honetako erakunde batean iharduteko.

Kakitzatek balorazio positiboa egin du erreferendumen emaitzei buruz, «intsumisioaren mugimenduen indartzea ikusten delako eta jarrera honek Gobernu zentralari zer pentsa eman beharko liokelako, lege berria hilda jaiko bait da».

Gaur epaituko dute
Sevillan Patxi Leone
intsumiso nafarra

IRUÑA

Patxi Leone intsumiso nafarra epaituko dute gaur goizeko 10,30etan Sevillako Epaitegi Militarrean, soldadutzara joan ez izanaren akusaziopean. Bere abokatuak libre utzi eta epaiketa bertan behera gelditzea eskatu du.

Bere ustez, Epaitegi Militar batek ezin du intsumiso bat epaitu, oraindik ez direlako soldadutzara joan. Epaiketa horiek Ohizko Epaitegi batean egin beharko liriteke, abokatuaren iritziz. Halaber, «gizartearen aldetik intsumisioak duen berma» kontutan har dezala eskatu dio abokatuak epaileari. Horren inguruan, eta epaiketaren aurkako bere jarrera azaltzeko, agiri bateratua sinatu dute Nafarroako CCOO, LAB, STEE-EILAS, ESK-CUIS eta CGT-ek. Halaber, gaur 12,30etan Epaitegi Militarren aurrean egingo den kontzentrazioa joateko deia egin dute sindikatuek.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Antonio Besga Astoreka, 90 urte.
Pablo Sanchez Landa, 77 urte.
Maria Luisa Gil Comellera, 87 urte.
Benito Oribe Villodas, 88 urte.
Jose Maria Lopez-Barrajon Sainz-Ezkerra, 75 urte.

Paulino Goxencia Aranguren.

ALGORTA

Antonia Moral Iturregi, 82 urte.

APATAMONASTERIO

Remigia Arifio Madariaga, 80 urte.

BARAKALDO

Ricardo Sanchez Corrales, 65 urte.

BERMEO

Julian Alonso Bravo, 58 urte.

DURANGO

Epifanio De la Fuente Blanco, 83 urte.

ELORRIO

Javier Gomez de Segura Ramirez, 71 urte.

LEIOA

Concepcion Aiarza Sorriketa, 81 urte.

Izarra Legarreta Calderon, hiru hilabete.

MUNDAKA

Marina Perez Gomez, 85 urte.

SANTURTZI

Eloy Caselles Gonzalez, 63 urte.

SESTAO

Eugenio Esquin Bilbao, 64 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Maria Luisa Elorza Barriola.

Victoria Urdaniz Arizkun, 87 urte.

Primitivo Legarra Etxarri, 78 urte.

Martin Jose Goikoetxea Maiza, 82 urte.

Francisco Pradera Barruetabena, 87 urte.

Julia Arranz Flores, 91 urte.

Maria Dolores Daguerressar Olaiola, 87 urte.

Angel Ruiz Martin, 67 urte.

Maria de las Nieves Serrano Amestoy, 43 urte.

ELDUAIEN

Maria Etxeberria Leiza, 98 urte.

ERRETERIA

Gregoria Iruiria Larunbe, 69 urte.

HERNANI

Juana Auzmendi Arratibel, 88 urte.

IRUN

Joaquina Beasain Galardi, 85 urte.

OIARTZUN

Ignacio Ezeiza Ibarguren, 46 urte.

ONATI

Andres Regueiro Fernandez, 70 urte.

ORDIZIA

Marian Larrea Izagirre, 88 urte.

ORIO

Braulio Diez Merino, 69 urte.

PASAI SAN PEDRO

Joaquina Inda Salaberria, 85 urte.

TOLOSA

Manuel Mateos Trigueros, 48 urte.

Soledad Ugarte Plaza, 83 urte.

ARABA

GASTEIZ

Gloria Salazar de Andres, 47 urte.

Margarita Berasategi Orueta, 52 urte.

EGINO

Ignacio Lopez de Alda Gonzalez de Zuniga, 64 urte.

NAFARROA

IRUÑA

Luis Alberto Garcia Aristoi, 24 urte.

Antonio Imitizaldu Olkoz, 70 urte.

ATARRABIA

Felisa Oloriz Bueno, 81 urte.

LIZARRA

Delfin Bergara Oion, 57 urte.

LUZAIDE

Damiana Arrosagarai Iribarren, 70 urte.

MENDAVIA

Maximo Elvira Arrastio, 85 urte.

UXUE

Francisca Jurio Sola, 87 urte.

LAPURDI

BAIONA

Germaine Pitrau, 84 urte.

ANGELU

Ginette Baratie.

MIARRITZE

Josephine Gonvalves, 82 urte.

Aristide Mazzarella, 83 urte.

NAFARROA

BEHEREA

GARRUZE

Jean Pierre Goiheix, 87 urte.

Arga eta Zadorrako jaitsierak

Argako uraren erabilera «zuzena»
aldarrikatuko dute larunbatean

IRUÑA

Arga Ibaiaren XI Jaitsialdia antolatuko dute ANAT-LANE, Eguzki, EKI talde ekologistek eta Iruñeko Magdalena auzokoek, ibaietik dituzten arazoak salatu eta uraren erabilera «zuzena» eskatzeko. Horrela, hilaren 29an, larunbata, Burlatako La Nogaleratik aterako dira partaideak, goizeko 10,30etan, ondoren Magdalenen bazkaltzeko. Igandean, Belaskoaindik aterako litzateke 10,30etan ere, Gareserainoko ibilbidea egiteko.

Talde antolatzaileek hiru eskakizun nagusi aldarrikatuko dituzte jaitsialdi honetan, beren esanetan, «historikoak eta orain arte lortu ez direnak». Lehendabizikoa, urazterren erabilera «ilegala». 1985eko Uren Legearen arabera, 5 metrotako

izan behar da ibaiaren ondoan ibiltzeko libre den zonaldearen zabalera, eta 100 metrotakoa babestu behar dena. Horretan ez dago inolako erakuntzarik egiterik, eta beti bere horretan mantendu behar da.

Ekologistek salatu dutenez, Arga ibaian ez da horrelakorik betetzen, eta legea atera aurretik jadanik zenbait zati pribatuak zirela adierazi dute: Club Natacion Amaya, Lagun Artea eta beste klubak bezalaxe. Halaber, lege hau oraindik ongi zehaztuta ez izateagatik nekazariak, txalek, baratzeak, urbazterrak etengabe okupatzen dituztela salatu dute.

Hondakin toxikoen tratamendurako planak ere kritikatu dituzte, beren ustez zenbait arazo larri konpontzeke bait daude, hala nola enpresa handien hondakinak, Arraizko eta Arizarteko urtegiak, eta abar.



Jaitsierak ibaien poluzioa salatuko dute.

'Kanalizaziorik Ez'
Zadorrako IV
Jaitsieraren lema

L.K.G. / GASTEIZ

Datorren igandean egingo da Zadorraren IV Jaitsiera 'Kanalizaziorik Ez' lemapean. Eguzki, Eki eta Babes-Elkarteen Arabako Federazioak parte hartzea deitu dute. Aurten, lehendabiziko aldiz, denek batera egigo dute.

Jaitsiera eguerdian hasiko da eta 2etan bazkaria egingo dute. Bazkalostean aurten aurreneko aldiz izango den 'Ibilaldi Ekologikoa' egingo dute ibaian zehar. Antolatzaileen ustetan, ibilaldi hau «lehen eta azken izan daiteke, baldin eta Zadorraren kanalizazioa aurrera eramaten badute». Ekologistek esan dutenez, hasieran Diputazioa oharaturik zen kanalizazioa egitea ez zela egokia «baina azken aldi honetan berriro komentatu dute Zadorraren kanalizazioarena, duela gutxi gertatu ziren ur-gainezkak direla eta».

Urtegia kontrolatzeko «gaitasun falta» adierazi dute ekologistek, kanalizazioari ekiteko Diputazioaren aldetik dagoen asmoa azaltzerakoan. «Ekosistema deuseztatu gura dute, ura nahi dutenetan bota ahal izateko» esan dute, gero ibaiandoko sistemen «balio ekologikoa» azpimarratzeko.